

# **EFSAren txostena hegazti basatietan PHHG birusa zaintzeaz**

**EFSAk** txosten bat argitaratu du European hegazti basatietan patogenotasun handiko hegazti gripearean (PHHG) zaintza aktiboa egitearen potentziala laburtuz. Alerta goiztiarreko sistema bat egitea proposatzen du txostenak, zaintza planean oinarritutako dena. Plana birus honen egoera epidemiologiko aldakorrera egokitzeko bezain malgua izan behar du; hala eginez gero, Europar Batasun osorako onura epidemiologiko nabarmena izango luke.

Ukrainan eta Georgian egin den landa-lanean **datu birologikoak eta ornitologikoak** aztertu dira eta argi geratu da PHHG azkar detektatzeko eta identifikatzeko laginketa-ahalmena eta logistika garatu daitezkeela.

**EBn hegazti basatiak zaintzeko sare bat eraikitzea gomendatzen du** txostenak, laginketa-nodoak hautatzeko tokiko aurrekari ornitologiko eta birologikoen datuak kontuan izanda, baina aldi berean egokitzeko malgutasunarekin, laginketak egin ahal izateko materialetara egokitzeko (hegazti basatiak, ehizako urmaelak, ingurumen-laginak, etab.), birusaren aldaketa epidemiologikoetara, laginketako ostalarien aldaketetara eta laginketak egiten diren urte-sasoiara egokitzeko.

Gainera, **birus enzootikoak zirkulazioan diren garaian** doitu egin behar da zaintza-sistema infekzio-boladak monitorizatzeko, hegazti migratzaileen mugimenduen arabera jarduerak gora egingo duela aurreikusten denean, birusari buruzko ohartarazpenak eman ahal izateko.

Amaitzeko, txostenak **zenbait eskualde proposatzen ditu, zaintza-sare hau diseinatzerakoan nahitaez kontuan izan** behar direnak.

---

## **Behi-ustiategiak antolatzeari buruzko arautegi berria**

MAPAk duela gutxi argitaratu du abenduaren 27ko 1053/2022 Errege Dekretua, behi-haztegiak antolatzeko oinarritzko arauak ezartzen dituena.

Arautegi berria **behi-ustiategi guztiei** aplikatuko zaie, eta behi-azienden ustiategien **antolamendu zooteknikoa eta sanitarioa egiteko oinarritzko arauak** jasotzen ditu, honako hauei dagokienez:

- **Gehieneko ekoizpen-ahalmena**, azienda motaren arabera.

- **Baldintza minimoak**, hauek dagokienez:
  - Azpiegitura, ekipamendua eta maneiua.
  - Kokapena, eta instalatu berri diren ustiategien osasun-bereizketa.
  - Biosegurtasuna, animalien ongizatea, higiene- eta osasun-baldintzak, SIGEren bidez (Behi Ustiategiak Kudeatzeko Sistema Integrala).
- Simaurrak kudeatzeko eta ustiategiko isuriak murrizteko ingurumen-baldintzak.
- Ustiategietako titularren **erantzukizunak eta betebeharrak**, prestakuntzari, biosegurtasunari, higienari, osasunari eta animalien ongizateari dagokienez.

Errege Dekretua **joan den abenduaren 30ean sartu zen indarrean, nahiz eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarriko diren baldintza batzuk** dauden, hala nola prestakuntzaren arloko betekizunak. Era berean, martxan dauden ustiategien kasuan, biosegurtasunaren, higienaren, azpiegituren, ekipamenduaren, maneiaren eta higiene- eta osasun-baldintzen (SIGE barne) arloko betekizunak 2026ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean; animalien ongizateari buruzko baldintzak, berriz, 2025eko urtarriletik aurrera jarriko dira indarrean.

Arautegi honen asmoa da ekoizpen-sistemaren eta tamainaren arabera ustiategiek bete beharreko betekizunen artean dauden aldeak jasotzea, haragiaren eta esnearen ekoizpenari dagozkion baldintzatzaileak kontuan hartuta, noski, eta alde batera utzi gabe neurri txikiko baserrien berezitasunak.

---

## **Mingain Urdinik gabeko Euskadi**

**MAPAk duela gutxi ebazpen bat argitaratu du, APA/1251/20201 Agindua aldatzen duena eta EAE mihi urdinik gabeko eremu gisa kalifikatzen duena.**

Hori guztia, **EAE**n eta aipatutako arauaren I. eranskineko C zatian zerrendatuta zeuden beste eskualde batzuetan «**mingain urdinaren birusagatiko gaixotasunetik aske**» **kalifikazioa onartzeko baldintzak betetzen direla** frogatzen duen informazio-batzordeari aurkeztu ondoren. Batzordearen ebaluazioaren ondoren, egiaztatu da eskaera horrek betetzen dituela 2020/689 (EB) Erregelamendu Delegatuaren 4. kapituluko II. zatian kalifikazio berria emateko ezarritako irizpideak, eta **Euskadi II. eranskinaren barruan sartzen da, LA birusaren 1. eta 4. serotipoen aurkako borondatezko txertaketa-eremu gisa.**

Mingain urdinari buruzko informazio gehiago esteka honetan:

---

## **Abeltzaintzan antibiotikoak erabiltzeari buruzko Errege Dekretu berria**

**MAPAk duela gutxi argitaratu du abeltzaintza-ustiategi guztietan (norberaren**

**kontsumorako ustiategietan izan ezik) aplikatzekoa den antibiotikoen erabilera jasangarria ahalbidetzeko neurriak ezartzen dituen araua.**

2011z geroztik, mikrobioen aurkako erresistentziari (RAM) buruzkoa ekintza-planak daude Europa mailan, EBko estatu kide gehienetan; estatu mailan, berriz, [PRAN plana eta haren Reduce programa daude](#) 2014az geroztik.

Albaitaritzako sendagaiei buruzko 2019/6 (EB) Erregelamenduak azpimarratu egiten du mikrobioen aurkako erresistentziak **osasun-arazo gero eta larriagoak direla Batasunean eta munduan, eta beharrezkoa dela erresistentziak sortzeko arriskua murriztea**. Bestalde, EEK "baserritik mahaira" Estrategiaren Komunikazioa argitaratu zuen; horren arabera, **helburua da 2030erako antimikrobianoen salmenta % 50 murriztea**.

Lege berri horren bidez, MAPAk metodo bat ezartzen du **espezie bakoitzarentzako antibiotikoen ohiko eta hiruhilekoko erabilera kalkulatzeko eta ustiategiaren araberako sailkapen zooteknikoa egiteko**. Horiek hiruhilekoko bakoitzaren 1ean eguneratuko dira automatikoki PRESVETen eta **erreferentziazko adierazleekin alderatu ahal izango dira**. Adierazle horien BOEn argitaratuko dira, beranduenez, urte bakoitzeko ekainaren 1ean.

Autonomia-erkidegoek ustiategietako titularren esku jarri ahal izango dituzte neurriak, PRESVETen, titularrek beren ustiatagia zein egoeratan dagoen jakin dezaten, erabilerari dagokionez, eta, beharrezkoa bada, neurri zuzentzaileak ezar ditzaten.

Errege-dekretu hau 2023ko urtarrilaren 2an jarriko da indarrean, eta ustiategiaren osasun-plan integralari buruzko araudia indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko da.

Informazio gehiago esteka honetan:

---

## **[Hegazti-gripea: prebentziorako neurri berriak Euskadin](#)**

**Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko abenduaren 5eko AGINDUAREN bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan hegazti-gripearen aurka hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen dira.**

Aurten EAE osoan zehar **hegazti basatietan H5N1 PHHG 22 foku jakinarazi dira**; hortaz, Euskadin aurten izandako intzidentzia kontuan hartuta, eta Euskadiko eskortako hegaztien ustiategietan gaixotasun horren kasuak ekiditeko, **hegazti-sektorea birusetik babesteko prebentzio-neurri batzuk aktibatu behar dira**.

Neurriak **biosegurtasuna, zaintza aktiboa eta pasiboa eta erregistro eta erroldak indartzera bideratuta daude**. Agindu horren bidez, honako hauek **debekatu dira**:

- **Anseriformes eta Charadriiformes** aginduko hegaztiak **amu gisa** erabiltzea.
- Eskortako hegaztiak **aire zabalean elikatzea**.
- Hegazti basatiek sarbidea duten **ur-andeletatik** eskortako hegaztiei ura ematea.

Bestalde, aldeko arrisku-analisia jaso ondoren eta baimenean jasotzen den baldintza-agiria derrigorrez bete ondoren, **agintari eskudunek baimendu** beharko dituzte honako jarduera hauek:

- Eskortako edo itxitako **hegaztiak biltzea** (abere-lehiaketak, erakusketak eta kultura-ospakizunak).
- Eskortako hegaztiak **askatzea birpopulatzeko**.

Gainera, foru-aldundietako animalien osasun-arloko zerbitzu eskudunek:

- Hegazti-**errolak egunera** ditzakete, **autokontsumokoak barne**.
- **Osasun-ikuskapenak** egin ditzakete, zaintza aktiboko sistemaren barruan beharrezkoa bada.

Bestalde, hegaztien **hilotzak** (bereziki espezie urtarrenak badira) aurkitzen dituen pertsona orori **lehenbailehen foru-aldundiei jakinarazteko** eskatzen zaio, beharrezko neurriak har ditzaten.

Hortaz, eta aldez aurretik agintari eskudunei eta hegazti-sektoreari galdetu ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Agindu hau argitaratu du. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta **hurrengo egunean indarrean jarriko da, hau da, 2022ko abenduaren 17an**.

IAAPri buruzko informazio gehiago:

---

## **Higiene Jardunbide Egokien Gidaliburua** **hiltegiertzat**

**Hiltegien Europako industriak, UECBVk ordezkaturak, txosten bat egin du, gaur egun EBko hiltegi batzuetan eraginkortasunez erabiltzen diren hiltegioko animaliak hiltzeko higie-jardunbide egokiak (HJEak) biltzeko.**

Gida hiltegiertzako langileentzako orientazio-dokumentu gisa aurkeztu da, jardunbide egoki propioak sor eta gara ditzaten laguntzeko, 2073/2005 (EB) Erregelamenduak eskatutako irizpide mikrobiologikoak betetzeko.

Dokumentuak animaliak hiltzean haragi freskoaren kutsadura prebenitzea eta minimizatzea du ardatz, bereziki material fekala duten kanalenak (burua, isatsa eta apatxak barne). Halaber, dokumentuan aldizka gerta daitekeen kutsadura fekala modu seguruan desagerrarazteko metodoak aurkezten dira. Alabaina, nabarmentzen da funtsezkoa dela ganaduzaleek animaliak garbi edo nahikoa garbi izatea.

Oro har, UECBVk azpimarratzen du animaliak hiltzean eta eraldatzean **prozedurei zor zaien arreta jartzen ez bazaie, kanaleko zati jangarriak kutsatu egin daitezkeela gizakiengan gaixotasunak eragin ditzaketen bakterio patogenoekin**.

---

# [Ardi- eta ahuntz-baztangaren kasu berriak Estatuan](#)

MAPAk duela gutxi eguneratu du ardi- eta ahuntz-baztangaren (AAB) egoera epidemiologikoa, Cuencan kasu berriak baieztatu ondoren.

Joan den 2022/09/19an [AAB berriro agertu ondoren Espainian](#), Granada probintzian, eta kontuan hartuta **desagertutzat jo zela 1968an**, eta [kasu gehiago hauteman ondoren](#), MAPAk gaixotasunaren egoera eguneratu du **Cuencan 2 foku berri baieztatu ondoren, ezarritako neurriei esker eta, batez ere, gaixotasunarekin bat datozen sintoma klinikoak eta lesioak detektatzeari esker.**

**Esne-ardien bi ustiategi dira, eta guztira 2.339 animalia daude: aurrekoei batuta, guztira gaixotasunaren 23 foku daude:** 12 Granada probintzian, 1 Almeria probintzian eta 10 Cuenca probintzian.

Albaitaritza Zerbitzu Ofizialek berehala hartu dituzte araudietan jasotako kontrol-neurriak: ustiategia hustea, 3 km-ko babes-eremua eta 10 km-ko zaintza ezartzea (ustiategietan biosegurtasun- eta zaintza-neurriak indartuz) eta animalia eta produktuen mugimendua mugatzea.

Azpimarratu behar da **AAB ez dela zoonosi bat, eta haragi eta esnearen kontsumoa, nahiz eta horiek kutsatuta egon, ez dela arriskutsua pertsonentzat.**

**Osasun-agintaritzek gogorarazten dute funtsezkoa dela ardi eta ahuntzen ustiategietan biosegurtasun-neurriak aplikatzea, baita animalien garraioan ere, eta agintaritza eskudunei edozein susmo jakinaraztea.**

Más información relativa esta enfermedad:

---

# [Hegazti-gripea prebenitzeko neurri berriak Araban](#)

Arabako animalia-osasuneko agintari eskudunek patogenotasun handiko hegazti-gripea (PHHG) prebenitzeko neurriak hartu dituzte, Iruña Okan jasotako hegazti baten gorpuan H5N1 PHHG dagoela baieztatu ondoren.

Eusko Jaurlaritzak prentsa-ohar bat argitaratu du, eta bertan jakinarazi du **Neikerreko Animalien Osasun Laborategiak H5N1 patogenotasun handiko hegazti-gripearen (IAAP) kasu berri bat baieztatu duela Langraiz Okako parke batean hilda aurkitu duten antzara batean.**

Kasu berri horrekin, 3 foku detektatu dira aurten Araban. Probintziako beste bi hegazti-gripe fokuak Salburua inguruan (Gasteiz) aurkitu ziren antzaretan erregistratu ziren.

Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak informazio-ohar bat argitaratu du, eta, horren bidez, hainbat biosegurtasun-neurri ezarri dira honako udalerrri hauetako ustiategi eta oilategi guztietan (autokontsumokoak barne): **Iruña Oka, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutio, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia.**

---

## **Landa-gida eguneratu da txerri-izurri afrikarra egon daitekeelakoan**

**MAPAk duela gutxi argitaratu du txerri-ustiategietan txerri-izurri afrikarraren susmoa izanez gero jarduteko gidaren eguneraketa.**

MAPAren Osasun, Higiene eta Trazabilitateko Zuzendariordetza Nagusiak dokumentu praktikoa hori eguneratu du. Dokumentua baliagarria da albaitaritza-zerbitzu ofizialentzako landa-gida gisa; izan ere, zerbitzuok arduratzen dira ustiapenak bisitatzeaz baldin eta gaixotasun hori egoteko susmoa badago edo hala baieztatzen bada.

Hala ere, aintzat hartu behar da txerri-izurri afrikarraren aurka borrokatzeko Eragiketen Eskuliburu Praktikoa, modu xehatuan deskribatzen baititu hartu beharreko neurriak, baita erantzunaren parte diren beste neurri asko ere. Albaitaritza Zerbitzu Ofizialek jarri behar dituzte martxan neurri horiek Espainian txerri-izurri afrikarraren fokuren bat dagoela uste badute edo hala baieztatzen bada.

Halaber, MAPAk berak [txerri-izurri afrikarraren egoerari buruzko azken txostenean](#) honako hau nabarmentzen du:

- Azken urteotan aurreko urteetako joerari jarraitu dio, eta udan kasu-kopurua nabarmen igotzen da.
- Gaixotasunaren hedapena basurdeen bidez, fokuak jakinarazi baitira ekialdeko Europan (Errumanian, Bulgarian, Hungarian, Polonian...).
- Lehenengo aldiz baieztatu dira kasuak etxeko txerrietan Grezian, Alemanian eta Italian.

Egungo egoera epidemiologikoa, Europako Batzordearen [ADIS azken txostenaren](#) arabera, honako hau da 2022aren hasieratik.

- Etxeko txerrietan 478 foku guztira, eta Italia da herrialderik nabarmenena hurbiltasunagatik:
- Basurdeetan, 5.990 kasu hauteman dira:

---

## **Hegazti-gripeak hegaztiengan eta**

# pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina

**Osasun Ministerioak ebaluazio arina argitaratu du foku berriek hegaztietan duten arriskuari eta pertsonen kasu berriei buruz, One Health ikuspegitik. Ebaluazioak ondorioztatu du hegaztietan foku berriak agertzeko arriskua oso handia dela oraindik, birusa oso hedatuta dagoelako basoko hegazti-espezieen artean. Bestalde, arriskua txikia da hegazti gaixoen eraginpean dauden ustiategietan esposizio okupazionala duten pertsonentzat eta oso txikia herritar orokorrentzat. Haragia edo arrautzak kontsumitzeagatiko arriskua hutsala da. Txostenenean birusagatik infektatuta egon ahal diren hegaztiekiko esposizioa duten pertsonentzako gomendioak ematen dira.**

Osasun Alertak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak (Osasun Ministerioaren menpe dago) hegazti-gripeak hegaztiengan eta pertsonengan daukan arriskuaren ebaluazioa arina argitaratu du. Ebaluazio hori egiteko arrazoia honako hau da: Espainian hegazti-ustiategi batean lan egiten duten pertsona batengan A hegazti-gripearen lehenengo kasua detektatzea (duela gutxi hegazti-gripearen agerraldia pairatu du). Ordura arte, gaixotasun horren bi kasu soilik detektatu ziren bi pertsonarengan mundu osoan, bata asintomatikoa eta bestea sintomatologia oso arinekoa.

2021-2022 aldian zehar, mundu-mailan hegazti-gripearen eraginik handiena erregistratu da hegaztietan; gainera, udako hilabeteetara luzatu da, eta hori ez da inoiz gertatu.

Mundu-mailan birusak duen esposizioa lotuta egon daiteke basoko hegaztiekiko duen etengabeko egokitzapenarekin. Halaber, gertakari hori ikusita, eta joan den udaberrian detektatutako fokuak aintzat hartuta, badirudi birusa eta gaixotasuna endemiko bihurtu direla gure inguruko basoko hegaztien artean. Horrez gain, egiaztatu da basoko hegazti autoktonoen artean transmititzeko gaitasuna duela.

Premisa horiek aintzat hartuta, ebaluazio horretan ondorioztatzen da **agerraldi berriak egoteko arriskua oso handia dela oraindik**. Agerraldi horiek eragin handia dute hegaztien osasunean eta galera handiak eragiten dituzte, hegazti-ustiategietan duten eraginaren ondorioz.

Hegazti-gripearen birusa hegaztiekin gizakiei transmititzea gertakari ezohikoa da eta pertsonen arteko transmisioa oso ezohikoa. Duela gutxi argitaratutako ebaluazioaren arabera, detekzio berriak agertzeko arriskua **txikia da hegazti gaixoekin kontaktuan dauden pertsonentzat** (kutsatutako abeltegietako langileak, al baitariak, ehiztariak, ornitologoak eta hegaztiekin kontaktuan dagoen ingurumeneko edozein agente). Gainera, pertsonen artean transmititzeko gaitasun txikia dela eta, herritar orokorrentzat dagoen arriskua **oso txikia da**. Bestalde, hegazti-haragia edo arrautzak kontsumitzearekin lotutako arriskua **hutsala da**.

Horrez gain, pertsonetan kasuak agertzekotan, bigarren mailako kasuak geratzeko aukera **oso txikia da**, gaixotasunaren kutsakortasunari buruz gaur egun eskuragarri dagoen informazio epidemiologikoa eta mikrobiologikoa dela eta. Bestalde, herritar orokorren artean giza gripearen eta

H5N1 hegazti-gripearen arteko koinfekzioa gertatzeko aukera ere (birusaren berrantolaketa eragin eta gizakien arteko transmisiora egokitutako birus berri bat sortu ahalko luke) **oso txikia** da; dena den, aintzat hartu behar da hegazti-abeltegi-tako langileetan.

Ebaluazio honetan emandako gomendioen artean, honako hauek nabarmendu ahal dira:

- Zaintza-sistemak mantentzea, bai animalietan, bai pertsonetan, eta gaixotasunaren edozein susmoren berri albait arinen ematea.
- Infektatuta egon daitezkeen hegazti-ustategietako esposizioa murriztea.
- Biosegurtasun-neurriak indartzea, bereziki hegazti-ustategietako basoko hegazti-ekin kontaktua murriztera bideratutakoak.
- Hegazti-ekin kontaktuan egoten diren pertsonen babeserako neurri egokiak gomendatzea animaliekin kontaktuan dauden uneetarako.
- Animalia infektatuen eraginpean egoteko arriskua duten talde okupazionalen urtaroko gripearen txertoa jartzeko gomendioa indartzea.
- Jarduketa-protokoloak jarraitzea ustategietan dauden agerraldietan eta birusagatik infektatutako animalien eraginpean dauden pertsonentzat.
- Animalia-osasunaren, ingurumen-osasunaren, osasun publikoaren eta laneko osasunaren arteko koordinazioa bermatzea.